
ISUSKITZA

1855-2025



BUSTERRI HERRI ANTZERKIA
GORLIZ-PLENTZIA

LEHEN AGERRALDIA

(Plentziako plaza, 1855ean. Igande goiza. Jende andana meztatik irteten. Laster, elizaren atartean mahai bat eta aulki batzuk ipintzen hasten dira aguazilak, udal batzordeko jendearen presentziarekin. Herritar batzuk berbetan hasten dira, jende horiei begira. Elizako horma batean dagoen kartel bat interpretatu guran dabilta andre batzuk, irakurtzen dakien beste baten laguntzagaz)

VIRGINIA: Gaur be hor parau behar ete dira zorioneko erremateari ekiteko?

PANTXIKE: Errematea?

VIRGINIA: Zera... subastea! Herriarena dana, geure lurrak saldu diru gehien pagetan dauanari! Hori da errematea!

PANTXIKE: Guri bai emongo deuskue errematea! Egia jeneral harropeste haren diru-zigorrak, kartzelaldia eta umilazioak jasan genduzan. Eta orain udalak herri-basoak saldu! Nora joan orain etxerako behar dogun egurraren bila? Labaldia egiteko, etxea berotuteko...? Herri-lurrak ez dagoz salgai, herriarenak dira-eta!

ANDRES: Eta zergaitik saldu behar dauz lurrak udalak, e Pantxike? Zuok androk, Urbanak, armak hartu zenduezalako! Ezpabere ez eban Egiak multarik ezarriko eta gaur ez litzakez lurrok salgai egongo!

PANTXIKE: Hara bestea! Lotsa gitxi behar da hori esateko!

ANDRES: Lotsarik ez dekodala nik?

PANTXIKE: Bapez, osterantzean ez zenduan hori guztia esango gu emakumeon aurka. Guk behin baino ez doguz koiu armak eta hemen izan da, Plentzian, gure herriari lapurretan egiten etozenei aurre egiteko. Gerra danak zuok gizonok biztu eta luzatu egiten dozuez, ba, orain ondorio txarrak geure erruz dirala esateko. Ardien kulpak bildotsek pagau! Holangorik!

ANDRES: Tira, tira, Pantxike! Zuk beti topetan dozu zeure burua zurituteko ere.

VIRGINIA: Ez dekozu errazoirik, Andres, eta badakizu, lerdoa ez bazara behintzat. Ganera, zor guztiak ez dira Urbanen multagaitikoak. Soldaduen *mantenimendurako* jan-edanakaitik be hainbat zor dekoz Plentziak! Esango dozu txakolin hori dana be androk edan gendula!

ANDRES: Emakumeak! Azken berbea beti zuona. *(Badoa)*

PANTXIKE: Egia dinogulako!

VIRGINIA: Itxi egizu, Pantxike, ganera ez deutsu entzuten.

PATRI: Ez dau entzun gura, hori beste gauza bat da.

(Bien bitartean, eliz atarian enkanterako guztia antolatzen dabilta: akta liburuak, idazluma-tintontziak, kandela txikiak... Kanpai-jotze berezi batzuk entzuten dira, iragarritz laster jendaurreko enkantea hasiko dela)

IDAZKARIA: Gaur, 1855eko urtarrilaren 21ean, Plentziako Santa Maria Madalena elizaren aterpean, lehenago ediktoen bitartez aditzera emon izan dan moduan, errematearen akabua emongo jako Isuskitza mendiko lur multzoari, bere osotasunean salduteko...

PANTXIKE: *(Oihuz)* Herri basoak ez dira salgai!!!

AGUAZILA: Isilik Pantxike, ezpabere plazatik kanpora joan beharko dozu.

PATRI: Danok bota behar gaituzue plazatik berba egiteagaitik? Geure eritzia behintzat entzungo dozue! Udalak ezin dauz saldu herri-lurrak! Ez dira bereak! Danonak dira!

(Patriren aldarriak oihartzuna aurkitzen du plazan dauden beste andre-gizon batzuegan; aldarri-oihuak ugaritzen dira. Aguazila haserretu egiten da, baina alkateak eten egiten dio, eta hitza hartzen du emakumeengana zuzentzeko)

ALKATEA: Entzun ondo, behin baino ez deutsuet esango eta: egia da kondizino normaletan udalak ez daukala herri lurak saltzerik... Baina honeek ez dira kondizino normalak! Zorrak janda gagoz, lur jota dago herria eta ez daukagu beste erarik zulotik urteteko. Bizkaiko Diputazioak, geuk eskatuta, oneritzia emon dau hori egin daigun. Zer gura dozue, kontribuzinoa hamar aldiz igotea?

(Gaitzespen oihuak, berba-hots zoliagaz batera datoz plazako jendearen aldetik)

PANTXIKE: Gura doguna da zorrak beste batek ordaindutea: diputazioak, gobernuak, armadak, aberatsek, bardin deusku! Guk armak hartu genduzan, gutako hainbat hil ziran borrokan, kartzelara joan ginan, isuna jarri euskuen emakumeak izateagaitik... Eskerrak gerrea irabazi genduna, ezpabere ez dakit zer egingo eben gugaz!

PLAZAKO JENDEA: Hori, hori! Ondo esanda, Pantxike!!!

ALKATEA: Ondo da. Ondo da. Entzun jatzu eta amaitu da eztabaidea. Nik esan beharrekoa esanda daukat. Eta aurrerantzean ez dot astrapala gehiago entzun gura plaza honetan. Bide horretatik jarraitu gura dauanak isuna eukiko dau...

PANTXIKE: Isuna niri? Beste multa bat? Pagauko deutsuet, bai. Hau da nire ondasun guztia. Eutsi, opari egiten deutsuet. *(Mantala askatu eta mahaikoen alderantz jaurtitzen du. Aguazil bat Pantxikegana hurreratzen da; eztabaidea labur baten ondoren, emakumea apur bat lasaitzen da eta enkanteak aurrera jarraitzen du)*

IDAZKARIA: Esandako moduan, Isuskitza mendi osoaren saltzeari, erremateari ekingo jako, eskaintzailerik onenari salduteko. Hasierako salneurria 307.912 erreal izango da, hau da, *tresientos siete mil nobesientos dose erreales*. Aguazilak esango dau zeintzuk diran errematearen zertzeladak.

AGUAZILA: Mentxaka jaun idazkariak esan dauan legez, 307.912 erreal izango da hasierako salneurria. Eskaintzaile bat agertuten bada, kandelatxua biztuko da; hori kandela hori amatau artean beste inork pujatzen ez badau, erosle horrek eroango dau. Puja bakotxa prezioaren ehuneko bi izango da beti, *dos portziento*, eta beste kandela bat biztuko

da hori jazoten dan bakotxean, harik eta kandlea berez-berez amatau arte. Aditu da?

(Baiezko keinu-adierazpenak jendearen aldetik, bereziki pujatzera etorri diren jaun dotoreenetik)

IDAZKARIA: Hastera goaz: Plentzia uriaren jabegoa dan Isuskitza izeneko mendi osoa, iragarri diran lote edo zati guztien batura egiten dauana, prezio honetan subastetan da: 307.912 erreal. Hasi bedi errematea.

(Kukullu jaunak altxatzen du eskua)

IDAZKARIA: Kukullu jaunarentzat momentuz, urteerako prezioan.

(Aguazilak kandelatxo bat pizten du. Zurrumurruak. Laster, Olagibel jaunak altxatzen du eskua.)

IDAZKARIA: Olagibel jaunak ehuneko bi gehiago eskaintzen dau.

(Aguazilak kandela amatatu eta beste bat pizten du. Ugarte jaunak altxatzen du eskua. Aguazilak kandela itzali eta beste bat pizten du)

IDAZKARIA: Ugarte jaunak ehuneko bi gorago.

(Olagibelek altxatzen du eskua. Aguazilak kandela itzali eta beste bat pizten du)

IDAZKARIA: Olagibel jaunak ehuneko bi gorago *(Denboratxo bat igarotzen da eta kandela berez-berez amatatzen da, puja gehiago gabe)*. Halandaze, hiru pujaren ostean Nikolas Olagibel jaunarentzat lotzen da Isuskitza mendiaren lote multzoa.

(Zurrumurruak eta protesta hotsak osteraren plazako jendearen ahotik. Olagibel mahairantz zuzentzen da, bere andre Teresa Tagle-k lagundurik. Hara bidean gelditu egiten dira; Tagle andreak Pantxikeren amantala lurretik jaso eta eman egiten dio adeitasunez, gur txiki bat eginez. Gero mahairantz doaz, eroste itunari sinadura jartzera)

ALKATEA: Zorionak, Olagibel jauna. Zorionak, andrea.

OLAGIBEL: Mila esker, Francisco.

ALKATEA: Aspalditik zenbilzan mendi hori eskuratu guran, badakit. Hemen ez egoan zalantzarik akabuan zeu izango zinala eroslea, eskaintzailerik ahaltsuena zara-eta.

OLAGIBEL: Baneukan guraria, bai, zertan ukatu, txikitarik liluratu izan nauan mendi hori eskuratuteko.

ALKATEA: Halanda be, eta hau gu bion artean, Nikolas, jakin geinke zer asmo dozun Isuskitzan egiteko? Negozio gizona zaitugu: dozenaka barku, errota, lurrak, errentak... baina Isuskitza zertarako? Egurra atarateko bakarrik?

OLAGIBEL: Egurra... ez da dana. Asmo bat, proiektu bat dot gogoan, igarri deustazun legez. Zeozer eraiki egin gura neuke Plentziarentzat, neu jaio nintzan herriarentzat. Jende horrek *(andreak seinalatuz)* lapurretatzat dauka uriak herri lurrak saltzea, eta nik ulertzen dot zergaitik. Zentzunez

egin dau berba Pantxikek, inoz zakar eta trauskil bada be. Gerrea ez dabe andra horreek sortu, baina bai inork baino gehiago sufridu. Beste aldetik zuena be ulertzekoa da: Plentziak ez eukan beste urtenbiderik, hil ala bizikoa zan saltzea, zorra kitatuko bazan.

ALKATEA: Zure asmo ona txalotzekoa da, Nikolas, baina Isuskitza inguru espeziala da: basotik dirua atarateko bai, baina beste ezertarako... Han erreka bazterrean lurra aberatsa da, baina itsosoko ura oso barrura sartzen da mareagaz. Ganera, bideak txarrak eta luzeak dira hona, kalera etorteko.

OLAGIBEL: Eukiko dau konponbiderik horrek guztiak. Datorren astean bisita egin behar deusat Sistiagari, Gipuzkoako adiskide bati. Oriokoa da eta zeozer erakutsi behar deust gai horren inguruan. Laster jakingo dozue zer darabildan esku artean, jestino batzuk aurrera ataratea badaukat behintzat.

ALKATEA: Jakinguraz beterik itxi gaituzu, Nikolas. Neure aldetik zorterik onena opa deusut, adiskide.

OLAGIBEL: Eskerrik asko. Dana lotuta daukadanean zeu, alkate zaran hori, izango zara lehenengoa jakiten, Francisco. Berba emoten deusut.

BIGARREN AGERRALDIA

(Jende multzo handi bat sartzen da: andreak, gizonak, umeak, txakurrak... Fardelak eta maletaren bat edo beste dakarte. Hizkera gipuzkoarra dute.)

MUTILA1: Hau dek hau, motel! Ze-nolako arrandiya! Hemen lan egingo al degu?

MUTILA2: Bai zera, txorua! Hau kalia dek, Plentziko kalia. Isuskitza dalako hori urruti zegok! Han ere lokatza eta zimaurre izango dituk, Orion bezalaxe!

MUTILA1: Ordun?

MUTILA2: Hara, hemen laster esplikaziyuak emango zizkigutek, motel! Hiri dana xehe-xehe eginda eman behar zaik, arraiua!

(Mahai baten bueltan Olagibel eta Teresa daude, plano handi bat aztertzen. Kolonoak datozela konturatzen dira)

OLAGIBEL: Hara, hor datoz! Sistiaga, aurrera. Erdu, erdu hona!

SISTIAGA: Egun on jauna... *(Bostekoa ematen dio Olagibeli)* eta andria... *(Gur txiki bat egiten dio Tagle andreari)*

TERESA TAGLE: Halan ekarri. Nekatuta?

SISTIAGA: Tia, pixkat. Behinipein bidaian egualdi argiya izan degu, gehienbat.

OLAGIBEL: Poztuten naz, laguna, zu ikusteaz eta bidea ondo egin izanaz. Lehenengo eta behin jan-edan batzuk atarako deusueguz, bideko nekea arindutearren. *(Morroi batzuei agindua emanda, horiek ura, sagardoa, ogia, gazta eta intxaurrak dakarte. Bidaiariek mokadua jan bitartean, Olagibelek eta Teresak plana aztertzen jarraitzen dute).*

MUTILA1: Aitu al dek, motel? "Erdi" esan dik. Eta, eta... "Atarako deusueguz". A ze hizketa bihurriya eta zatarra!

MUTILA2: Hago ixilik, kaiku hori, janaria ekartzeko agindu ziek! Hor zekartek! Hizketa zatarra diok? Hori ikasi beharko diagu ba. Bizkaitarra edo erdera, zein nahi dek?

MUTILA1: Bizkaitarra, bizkaitarra. Kastellanua eta latina ez dituk niretzat eginak. Mmm, zeoze bazekiat, baina: "sagarra mantzana, ikatza carbón, mujerrandria ta hombrre gizon" Aitu al dek? Gero kaikua naizela esango dek!

MUTILA2: Hori bada erdera jakitia, ordun nik latinez bazekiat: "Amen... hi hor eta ni hemen" Harrapa zak hori!

(Halako batean, Olagibel eta Sistiaga ados jarrita, denak mahai ingurua utzi eta ugazaba berriei begira jartzen dira)

OLAGIBEL: Ondo da, lagunok. Sabel-zorria kenduta, hobeto, ezta? Ondo etorriak danok Plentziara. Lehenengo eta behin alkar ezagututen hasi beharko. Ni Nikolas Olagibel nozue, plentzitarra. Zuen ugazabea izango naz, neure andreagaz batera.

TERESA TAGLE: ...Teresa Tagle naz. Ondo etorriak (*Erdal azentu nabarmenez*)

OLAGIBEL: Ta zuek? Esango deuskuzue familia bakotxaren izena eta herria?

Sistiaga, Orio

Arrizabalaga, Getaria

Aizpuru, Getaria

Izagirre, Aia

Urbietta, Itziar

Arruti, Orio

Atxutegi, Orio

Etxaluz, Getaria

Etxabe, Oiartzun

Amundarain, Orio?

Garagarza, Mutriku

OLAGIBEL: Ondo da. Esan eta agindu jatzuen moduan, geure Plentzian lana eta jana eukiko dozuez. Gaurkoan lo egiteko aterpe bat izango dozue hemen, kanean, eta bihar bertan abiatuko gara hemetik legoa bira dagoan Isuskitzara, hango beharrei ekiteko. Arotzek, danon laguntzagaz, behin-behineko txabola batzuk altzauko dabez lehenengo hilabeteetan edo urteetan aterpe bat euki daizuen, harik eta baserriak eraiki arte. Ostean, behar bi eukiko dozuez: soloak preparentan hasi, eta aldea-etxeak, hau da, baserriak eregi. Soloak behe aldean kokatuko dira, erreka bazterrean, lur emonkorrenetan. Horretarako, zuen herrietako eskarmentuaz baliatuko zarie, Sistiagak erakutsiko deutsuen moduan.

SISTIAGA: Hara, Oriyon eta Getarin egiten degun bezalaxe egingo degu hemen ere: palatuak, ubidiak eta txinboak egingo ditugu, mariagorak dakarren ur gazitik babesteko. Errazena bihar, han bertan esplikatzia izango da...

OLAGIBEL: Sistiaga eta Arrizabalaga izango dira zuen kapatazak. Artzainak sekainetan, goi-lurretan kokatuko dira; honeei zortzi ardi eta ahari bat emongo jakez, denboraren joanean ugalduz joango diranak. Lau behi bere hara eroateko gertu daukaguz, sei txarri gazte, mando bi, oiloak eta lau anega urun aurtan erabilteko, lehenengo urteko artoak etorri artean. Labea egingo da, ahalik arinen ogia egosten hasi ahal izateko. Egur faltarik ez dozue eukiko Isuskitzan, eta aizkolari trebeak ei dagoz zuen artean. Urte bat edo bi igaroko dira etxeak eraikitzen amaitu arte. Familia bakotxak etxebizitza bat eukiko dau eta urtero, Santo Tomas egunean maizterra izateari jagokon 800 errealeko erretea pagauko dau. Berba baten esanda, Isuskitzari jaten emongo deutsagu, eta Isuskitzak jana emongo deusku. Horra hor gure ituna lurragaz!

(Errentaren aipamena entzutean asaldura sortzen da bertakoen artean. Isileko komentario batzuk ere bai. Bi mutilek, baina, euren artekoari darraiote)

MUTILA1: Erdiya ere ez diat entenditu! *Txinboak, sekainak*: hori dek hizketia!

MUTILA2: Ixo! Hara, hik egintzak kapatazak bihar agintzen diana eta kittu!

MUTILA1: Hik beti dana erraza ikusten dek, motel... etzekiat, etzekiat...

(Bien bitartean, Arrizabalagak gainerakoen iritziak eta arrangurak biltzen ditu; laster hitza hartzen du, Olagibeli zuzenduz:)

ARRIZABALAGA: Jauna, gaurtik Eguberriyak bitartean ezingo degu diru hori eskuratu... dana egiteke dago oraindikan...

OLAGIBEL: Ez arduratu, Arrizabalaga. Negozio gizona nozue eta badakit, ondo jakin be, hasiera guztietan dirua jarri egin behar dana, inbertidu. Aurton ez jatzue errentarik kobrauko. Datorren urtean... ikusiko da. Behar asko dago egiteko, baina Isuskitzako lurra ona da. Emoten hasten danean etxekoak asetzeko eta hemen plazan salduteko bere eukiko dozue. Ganera, egurra eta ikatza bere ekarri zeinkie eta kalean saldu...

ARRIZABALAGA: Bi legoa... urruti da honeraino ekartzeko...

OLAGIBEL: Mandoan ekarteko bai, baina urez errezagoa da. Errekea Isuskitzatik datorrela Plentziaren pare-paretik igarotzen da. Sistiagak eta zuk zeuk bere badakizue batelak edo gabarrak egiten, Orioko errekan gora eta behera ibiltzen diranak modukoak. Euki konfiantza nigan. Isuskitza ez dot bihar-etzi karuago saltzeko asmotan erosi. Zeozer eraiki egin gura dot: zuontzat, zeregin eta soldata barik zagozienontzat; eta Plentziako jendearentzat, danean urri dagoan herri hau hornidu ahal izateko: ortuariak, okelea, ikatza... Hori guztia Olagibelek dirua galdu barik, jakina.

MUTILA1: *(Lagunari isilean)* Hori aitu diat, motel: Olagibelek ez dik dirurik galdu nahi! Tartekua... halamoduz.

OLAGIBEL: Ez dakit dan-dana ulertu deustazuen, nire berbeta-modua eta zuena desbardinak dira-ta. Edozelan be, Plentziko kalean, zoritxarrez, gero eta sarriago entzuten da erderea, eta Bilbon beste horrenbeste. Zer gehiago esan! Gipuzkoako zati bat ekarri dozue gure herrira, hango euskerearen musika berezia eta guzti. Zuok, behintzat, eutsi deiozuela sendo eta beti gure euskera ederrari. Urte askotarako! *(dio, edalontzia goratuta, topa gisa)*

HIRUGARREN AGERRALDIA

(Zitzeren etxe aurea. Bizitasuna eta nolabaiteko joritasuna ageri da auzoan: erbiak dakartzan anaia, angulatan doan osaba, ikazkinak, txalupa bat arraunagaz dakarten batzuk... eta musika ere bai. Angulero batekin berbaz hasten da Tomas)

ZITZE: Arrastion, laguntxu.

ANGULEROA: Arrastion Zitze. Zelan bizi gara?

ZITZE: Ederto baten. Zertan kejauko gara, ba, inork ez deusku entzungo-eta! Angulatan ondo? Hara, otzarea ondo betea dakarzu. Poztasuna daroazu etxera... eta etxekoen sabelei ase.

ANGULEROA: Bai horixe! Ganera, Isuskitzako angulak lakorik ez da Bizkai guztian. Okerrena da belu egin jatala... ea Plentziara sasoiz ailegaten nazen akabuko trena koiuteko.

ZITZE: Ez dozu zertan arrapaladan ibilirik. Lotu zaitez gurean lotarako. Korta bazterrean lekua egingo jatzu. Itxizu trena bihar goizerako. Felisak zeozer iminiko deusku afaritarako. Ganerako guztia soinuak eta panderuak iminiko dabe.

ANGULEROA: Ez da plan txarra. Ardaoa neure kontu... eta lukainka mutur hau bere bai *(Fardeletik ateratzen ditu biak)*.

ZITZE: Bueeenno! Horregaz hiru egunerako lotu zeintekoz gurean.

ANGULEROA: Kar-kar! Ez nintzake aspertuko gero! Zitze baserrian beti jendeen joan-etorria, abegi ona, alaitasuna, umorea...

ZITZE: Zer gura dozu ba? Behar asko egiten dogu familia aurrera atarateko, andra Felisak batez be ze nik... *(Isilean)* noizik behin badakizu erromeriaren baten luzatu egiten naz eta etxerako bidea topatea kostau egiten jat... Andrea barriz, hemen beti, etxaldearen kargu.

(Felisak entzun egiten dio eta elkarrizketan sartzen)

FELISA: Egizu berba isilean, bai, nik ez adituteko moduan. Erromerietan luzatu... egun bi eta gau bi be luzatu zu etxetik kanpo! Eta ni hemen ume guztiakaz eta baserriko behar guztiak neure gain! Luzatu... *(Badoa haserre samar)*

ZITZE: Baserria hori da, laguntxu, egun guztian beharra eta beharra, eta sekula aberastu ez; baina ni beti pozik. Aitak esaten eban moduan, "Pozik bizi bazara, aberatsa zara"

ANGULEROA: Aitak eregi eban baserria?

ZITZE: Aittittek, aittittek egin eban Zitze. Ni Arrizabalaga naz, badakizu, aittitte Juan Bautista legez. Gu "Olagibelek ekarriak" gara, Sistiaga, Arruti, Amondarain... eta beste asko legez, Gipuzkoatik etorritakoak, gero hemekoakaz ezkonduak.

ANGULEROA: Olagibel: entzunda daukat, bai. Harek erosi ei eban hau guztia...

ZITZE: Erosi, jendea ekarri lurrak landuteko, urei eusteko palatuak-eta altzau, ganaduak sartu, baserriak eregi... Eta gero, saldu oster a be, ez dirua egiteko, ezpadaze zorrak pagetako. Olagibel, Bilboko gizonik aberatsena txakur txiki barik hil zan, patrikak huts-hutsik. Akabuko gerra karlistagaz haren negozio guztiek lor jo eban eta ondasun guzti-guztiak emon behar zorrak ordainduteko. Eta horra Isuskitza barriz be errematera atara.

ANGULEROA: Ta nork erosi?

ZITZE: Arrotegi dalako batek. Harek eskolea egin eban auzoan eta maistra ekarri Gipuzkoatik, maistra euskalduna e! Holangoa eskatu ei eban eta holangoxea ekarri, umeei euskeraz egiteko maistra bat.

ANGULEROA: Ta orain nor da Isuskitzaren jabea?

ZITZE: Arrotegi hil da gero haren alaba Palmira izan zan. Eta orain Gondra, Gondra da gure ugazabea, harexi ordainduten deusagu erretea. Eta gu hemen, eguneroko beharrean, eta seme-alabei bidea egiten.

ANGULEROA: Izan daitela bide luzea, Tomas, urte askotarako.

ZITZE: Hori ba! Ardao horren kuartillutxu bat atara eizu ointxe, gizona. Hor botilan preso alferrikaldu egingo dok. *(Tragoa edanda soinua eskuratzen du. hari begira dio:)* Hemeko honek zeozer esan gura dau!

(Kopla jotzen hasten da. Laster hurreratzen dira anaia, osaba, andre Felisa eta beste batzuk. Kantua eta dantza giro alaia sortzen da)

(Denboragarrenean, auzoko bat sartzen da, artegatasun handiz eta arnas estuka)

AUZOKOA: Akabo pakea! Akabo pakea! Bilbon izan naz eta ikusi dot. Gerrea ailegau da Euskadira. Lehendakari Agirrek eta Jaurilaritza osoak armetarako deia egin dabe errepublikearen alde borroketako. Franco zital horren tropak Bizkaira sartzen ei dagoz.

ZITZE: Ama putearen semea! Ba, ni ez naz geldi egongo. Non emon behar da izena Eusko Gudarostean sartuteko?

AUZOKOA: Bidarteko koartelean, Bilbon.

FELISA: *(Gizonari, hau joateko prestatzen dabilela ikusirik)* Nora zoaz?

ZITZE: Euskadigaz gerrea egitera, geurea dana defendiduten.

JOSE MARI (anaia): Ez zara bakarrik joango, anaia, neu be banoa. *(Beragaz joateko prestatzen da)*

JOSE MARI (koinatua): Eta ni. Goazan! *(Bera ere badoa. Hirurak abiatzen dira auzokoagaz. Baserri aurrean emakumeak eta umeak baino ez dira geratzen, anguleroa salbu)*

ANGULEROA: Eutsi, Felisa. Ondo etorriko jatzuz. *(Angulaz beteriko otzarea ematen dio; gero, gainerako gizonak joan diren lekurantz oihuka presatzen da)*. Eup, itxaron niri, banoa zuokaz!

FELISA: Hara, gizon guztiak badoaz, atzera begitu barik joan be. Jaungoikoak ekarri deiskuzula bizirik eta onik! Eta bien bitartean gu androk zer? Umeak, etxea, soloak, ganaduak... danaren kargu hartu behar. Eta hori asko ez bada, egunero pentsamenduan gizona frontean galtzearen bildurra! Kasurik onenean, gerrea irabazita, hilak, zaurituak, pobrezia... baina galtzen bada, hori guztia eta gehiago, asko be okerrago izango da! Zer egin dogu euskaldunok hainbeste gerra bizi izateko?

LAUGARREN AGERRALDIA

(Felisa eta Tomas Zitze, Isuskitzako euren baserritik gertu)

FELISA: Tomas, larri gabilz, umeei ahora emoteko sagar tximurrak eta morokila besterik ez dago, eta horretatik be gitxi. Erbitan ezin dozu joan?

ZITZE: Erbitan? Erbia harrika hiltea gura dozu? Eskopeta zaharrak ez dau ezertarako balio eta, ondo ibilita be, kartutxurik ez dekot. Ez nik, ez inork bere.

FELISA: Ene ama!

ZITZE: Txarria hilgo dogu, horixe. Ez dago gura beste hazita, baina behar izanez gero...

FELISA: Txarria hilteko Guardia Zibilari permisoa eskatu behar, errazionamendu lege honegaz bizi garanetik.

ZITZE: Zera eskatu! Eurek ezetz esateko eta ganera pistan jarri daiguzan? Gaez hilgo dogu buruan mazoagaz jota, danba. Eta itaunka badatoz, txarria gatzak jota, gaixorik hil dala esango deutsegu. Aurrera egingo dogu, Felisa, ez euki ardurarik. Datorren astean Plentziako olatu hormea konpontzen hasteko dira. Berba eginda daukat geure gabarreagaz hara materialak eroaten joateko; hortik hogەرleko batzuk atarako doguz. Horrek be lagunduko dau.

FELISA: Dana beharko da, dana beharko da. A zelango denborak! Banekian nik, jakin be, gerrea amaituta beste gerra bat etorriko zana: gosea arerio dan gerrea. Ene Jauna! Soloko beharretara noa. Ta zu?

ZITZE: Hemen lotuko naz. Gabarreari ura sartzen jako. Ea zeozelan tapetan dodan zuloa, konponketatxu bat eginda. Animo, Felisa, eutsi, aurrera egingo dogu-eta!

(Felisa badoa. Zitze ohol batzuk aukeratzen eta atontzen geratzen da gabarraren konponketarako. Kantari dabil. Handik lasterrera hegazkin-hotsa entzuten da; ostean, danbada bat ez oso urrunean. Akabuan, zarata batzuk aditzen dira basoan. Pilotu aleman bat da, paraxutean jauzi egin duena)

SCHULTZ: Scheiße! Was ist das?

(Soldadua herrenka dabil. Zitze ikustean artegatu eta pixka bat izutu egiten da)

ZITZE: Trankil, trankil, ez artegatu. Goitik, zerutik zatoz? Bai? Zelango aingerutxua zerutik etorteko! *(Dio Zitzek, soldaduaren ikur nazia besokoan ikustean)* Min hartuta zagoz? Jarri, jarri hemen. Alemana zara. German?

SCHULTZ: Ja, Deutscher.

ZITZE: *When I work in a ship I learn some English... a little. (Alemanak ez du ulertzen) No? ¿Español tampoco entiendes? Estamos buenos. Ba,*

euskeraz egingo deutsut, Isuskitzako berbetan, hala. Orain denkantsau hor. *You rest now, Okay?*

SCHULTZ: Ja, Okay. Danke.

ZITZE: Izena...? Ni, Tomas. Zitze, Zitze esaten deuste danek.

SCHULTZ: Ja, Zitze. Ich bin Schultz. Schultz.

ZITZE: Schultz? Tira, ez dok hain gatxa. Min dozu hankan? *You have pain in your leg?* Ea itxi ikusten. Zaneten bat egin dozu. Nik badakit hori osatuten. Honegaz: zan-bedarra (*Bazter batetik belar hostotsu bat batuta erakusten dio*). Gero Schultz nigaz etxera eta nik osatu hori. Baserrian sartena eta gantz apur bat behar da, gero bendea imini eta laster zu oinez ibiltzen, tipi-tapa, *soon you are walking*.

SCHULTZ: Aber was ist das? Frankreich oder Spanien? (*Dio lurra seinalatuz*)

ZITZE: Hau... ez Frantzia ez Espainia, laguntxu. Hau Euskadi da. (*Soinua hartuta, bertan itsasirik dauden ikurrina eta Aranaren argazkia erakusten dizkio*) Begitu: ikurrina, *our flag*. Begitu: Sabino Arana, gizon handia. Eskerrak ez dozuna ulertuten, ezpabere ni ostera be kartzelara. Kartzela, *jail, you understand?*

SCHULTZ: Ja, Ich verstehe. Jail.

ZITZE: Ni *the year 37, treintaisietean* kartzelan. Kontauko deutsut. Ni gerrara joan nintzan, hemeko asko legez, errepublikearen alde. 37an Bilbo jausi zan Francoren eskuetan. Orduan esan neban: hau galduta dago. Etxera noa, han gehiago behar nabe. Fusila ekarri neban, hemen erbiei tiro egiteko. Bidean Guardia Zibilak gelditu eta preso, kartzelara. *To jail*. Heriotz zigorra imini eusten, *pena de muerte*, hainbateri legez. Anaia Jose Mari hil eben, fusilau. Ni, egun batetik bestera, noz fusilauko itxaroten, kartzelan. Felisa neure andreak goiak eta beheak jo ebazan ni ez nengien hil. Akabuan, ezagutzen genduan Plentziako falangista bati esker urten neban bizirik. Persona ona, frankista, baina ona, *good person*. Bizia zor deutsat eta betiko eskertuta nago. Personea da inportantea, *you understand? The person is what is important. Now I help you*. Zure banderea eroen abioiek bonbardeau eben Gernika, Bilbo, Durango... baina zu personea zara, segurutik ez da zure errua, ez dakit...

SCHULTZ: Vielen Dank, du bist ein guter Mann.

ZITZE: Orain etxera eroango zaitut, Schultz. Emongo deutsut kafea eta esnea, *coffee and milk*, eta osatuko deutsut zanetena.

SCHULTZ: Zitze.

ZITZE: Zer?

SCHULTZ: In welcher Sprache sprechen Sie?

ZITZE: Zelan, zelan?

SCHULTZ: Sprache... Spanisch?

ZITZE: *No, no spanisch. Basque*. Euskera.

SCHULTZ: Euskera...

ZITZE: Bai, euskera, euskaldunon berbetea. *The language of the basque people*. Esaiozu hori Francori! Orain goazan etxera. Nik lagunduko deutsut. (*Artezten da eta laguntzen dio ibiltzen*) Gero Guardia Zibilei deituko deutsegu esateko hemen jausi zarala eta eurek emongo deutsue laguntzinoa zeure lagun alemanakana bueltetako. Franco eta Hitler, lagunak, *friends*. Zelango txarri pare! Baina Schultz, hori bai... entzun ondo: *you my friend?* (*Alemanak baietz egiten du buruaz*) *Don't say to Guardia Zibil: "Euskadi, ikurrina, Sabino Arana, euskera", you don't tell them. If you tell, I go to jail again.*

SCHULTZ: No, no Euskadi, no ikurrina, no Sabino, no... euskera. Ja, Ich verstehe.

ZITZE: Goazan, Schultz. Andreak ikusten nauanean naziategaz, berak ez *verstehen*...

BOSGARREN AGERRALDIA

(Bilboko zur-biltegi batean gaude. Kartel handi batean hau irakur daiteke: MADERAS ARTABE. Zerra-hotsa, kamioien motor-burrunba... datoz kanpotik. Lehen pisuko bere bulegoan Artabe dago, zigarro-purua eskuan, kontu batzuk gainbegiratzen. Etxabetik bulegaria dator, eskaileran gora)

BULEGARIA: Señor Artabe, don José, hay un montón de mujeres en la puerta. Dicen que tienen que hablar con usted. Son aldeanas, y algunas están muy... excitadas. ¿Las hago pasar?

ARTABE: Mmm... No estoy, díles que no estoy.

BULEGARIA: Si, señor.

(Bulegaria behera doa. Lasterrera astrapala handia entzuten da eta zain zeuden andre guztiak tropelean sartzen dira Artaberen bulegora. Bulegariaren oihuak entzuten dira, gainez eginda dagoela)

ARTABE: Zer egiten dozue Bilbon, neure ofizinan? Hau ez da zuentzako lekua.

MARI: Hau ez dala guretzako lekua! Zein da, ba, gure lekua? Isuskitzako geure baserrietatik bota egiten gaituzu eta zure enkargadua bitartez jakinarazoten deuskuzu!

ARTABE: Ez neukan nik Plentziara joaterik, baina Gregoriok polito esplikaeko eutsuen...

MARI: Esplikau!? Ze esplikazino ete dauka gure birraitite-birramamek eregitako baserriak botateak eta gu danok kalean ostikada bat emonda iminteak? Ze esplikazino dauka *berorrek* aurpegia ez emoteko???

ARTABE: Mari, Gregoriori ondo aditu badeutsozue, jakingo dozue ez zoaziela kale gorrira, ezpadaze Matrailunen zuek biziteko egin dodazan pisu barrietara...

MARI: Matrailunera zeure pisu baten bizitzera? Badekot nik etxea Isuskitzan, neure familiak antxina, zu jaio baino asko be lehenago eginda. Bost jenerazinok behar egin dogu bertako lurra landuten, Plentziari zerbitzu bat egiten, beti geure errentak pagetan ugazaba guztieri, berorri altuenak askogaz, portzierto...

ARTABE: Zuetako batzuk badakit pozik joango dirana pisuetara, ez da holan, Bego?

BEGO: Bai, egia da guretzat baserriko beharrak eta bizimoduak ez daukala jarraipenik. Seme-alabek ez dabe lurretik bizi gura, ez da erreza, eta Isuskitzasao lotzen da leku guztietatik...

ARTABE: Ikusten?

BEGO: Baina, jauna, hori gure eta beste batzuen kasua da edo izan leiteke: eskeiniz gero, pisua koiutea. Baina ez dogu ondo ikusten jende guztia handik botatea holan, itaundu barik, lotuteko aukerarik emon barik. Bertan lotu gura dabenei itxi egin beharko litzakie. Urte asko pasau dira gure antzinakoak ailegau ziranetik...

ARTABE: Isuskitza saldu egin behar da, salduta dago. Osorik. Baserriak bota egin behar dira. Urbanizazio bat egingo da, txaletak altzauko dira mendi guztian. Zertan etorri zarie, lehendik dakizuen barrero entzuten?

MARI: Zeure ahotik, berorren aho guzurti horretatik entzun gura genduan, guri aurpegira esanda, ea holan ez ete zinan lotsaz gorrituten behintzat!

ARTABE: (*Deseroso*) Ez... daukat zer lotsaturik. Negozioak dira. Ganera, ikusi dan legez, zuetako asko pozik joango dira pisuetara, hori esan dozue; baserriko beharrak gustuko ez eta kalera etortea aukera hobe dala gazteentzat, Isuskitzako zuloan egon beharrean. Esan dodana: negozioak negozio. Dirua behar dot, familia handia daukat-eta.

MARI: Familia daukazula! Artabe jaunak familia dauka! Eta guk ez? Gu zer gara, txakurrak baino gitxiago holan erabilteko?

ARTABE: Isuskitza neurea da, erosi egin neban. Zuek erreteroa zarie...

MARI: Erosi bai, badakit nik zegan, lau txakur txiki pagauta. Zeure eskuetara joan zanean, Isuskitzako artadi ederrak, pagadi apartak, harestiak... danak bota zenduzan zure negozio honetan dirua egiteko. Gure errentak igo eta beste esplotazio asko gure lepotik... eta orain hau? Ondino ez deusozu nahiko diru atara?

ARTABE: Esker txarrekoa zara. Tratu ona emon izan deusuet beti. Gabonetan erretea pagetan etorten zinienean bakailao siku oso bana emoten jatzuen...

MARI: Orain be bakailao bategaz ahoa tapau gura deuskuzu?

ARTABE: Hori be emoteko gertu nago...

MARI: Emon bai, bakailaoa. Badakizu zer egingo dodan zeure arrainagaz?

FELISA2: Mari! Ez, lasaitu zaitetz...

MARI: Eperdiko zulotik sartuko deusut bakailaoa, hazurrak eta guzti!!!

FELISA2: Ai ene! Esan deusut ez berotuteko! Goazan, goazan, seina, hemen ez dago zer eginik.

MARI: Jakizu, Artabe, jiziora eroango zaitugula egin dozunagaitik. Lurra lantzen dauanarena da, ez azken ugazaba pezeteroarena! Lotsabakoa!

(Gainerako andreen aholkuz eta zerbait beharturik, aterantz daroe Mari. Bidean gorantz datorren bulegariagaz egiten dute topo)

BULEGARIA: Don José! He oído *bacalao* varias veces. Es lo único que he entendido, y he traído uno por si acaso. Como usted solía...

MARI: Trae pacá, vas a ver lo que hago con tu bacalao, besugo mas que besugo!

BULEGARIA: ¡Ai ama! ¡Don José, quítemela de encima! ¡A mí no me paga por esto!

(Bulegaria ihesi jartzen du Marik, bakailaoagaz lepoan joka erabiliz)

SEIGARREN AGERRALDIA

(Isuskitzako basoan, 2025ean. Irakasle bat ikasle taldetxo bati azalpenak ematen dabil)

IRAKASLEA: Eta horrela heldu gara hogeita batgarren mendera, 2025era hain zuzen ere. Zer iruditu zaizue Isuskitzaren historia?

IRATI: (Ahapeka, Olaiari) Luzea!

OLAIA: Kar, kar, kar... Apur bat nahaste. Horrenbeste izenekin...

JONATAN: Ni uste nuen kontatuko zenigula *lo de* bidea ez konpontzea udaletxeak. Nire lehengusuak *Abanicon* bizi dira eta izeko *se queja mogollón* errepideagatik. Baina orain, uste dut *ya* konpondu dela.

IRAKASLEA: Beno, horiek gaur eguneko kontuak dira...

IRATI: Abanikoan bizi dira? *Qué morro!* Aberatsak dira?

JONATAN: Zu baino gehiago bai.

IRATI: Ñiñiñi.

OLAIA: *Chulito!* Seguru ez daukatela pizina pribaturik!

JONATAN: Ba, bai.

OLAIA: *Qué va!* Klub horretara joango dira, *en plan*: "Somos los pobres entre los ricos"

IRAKASLEA: Olaia, zuk euskeraz egin!

JONATAN: Zu zer dakizu? *Si* ez zara inoiz egon?

OLAIA: Baina Butroerako bidetik ikusi ditut!

JONATAN: Bai, *seguro!*

IRAKASLEA: Jonatan eta Olaia! Ez hasi berriro! Ez dizuet oraingo Isuskitzaz hitz egin, hain zuzen ere lauhilabete honetako proiektua herriko historiarekin, ondarearekin lotuta dagoelako. Isuskitzan itzelezko kultur ondare aberatsa egon da, gutxi ezagutzen den arren. Eta horri buruz hitz egin nahiko nuke. Zer iruditu zaizue Olagibelen proiektua?

IRATI: Zuhaitzak, baserritarrak eta baserriak? *Sin más.*

OLAIA: Guayagoa da orain, pizzinadun etxeekin, kluba, *cochazos...* *en plan Hollywood!*

IRATI: Seguru urtebetzeak ospatzeko limusinan doazela.

JONATAN: *Qué flipadas!*

IRAKASLEA: El Abanico urbanizazioa Isuskitzako zati bat baino ez da. Hau ere, birlandatzen ari garen basotxo hau ere bada Isuskitza. Baina tira... Abanicon bizitzea gustatuko litzaizueke?

DENAK: Bai, noski, klaro!

IRATI: Eta limusinan joan.

OLAIA: Eta Iphone 13 euki.

IRATI: Eta pila bat arropa erosi...

IRAKASLEA: Irati eta Olaia, ez desbideratu. Isuskitzaz ari gara, ondareaz, ohiturez... Eta Abanicoaren gaia atera duzue, bertan bizi nahiko zenuketen galdetu dut. Biziko zinatekete nahiz eta herritik urrun egon?

IRATI: *Ya*, hori *rollo* bat da. Astillero ondoan bizitzea praktikoagoa da.

OLAIA: Baina motorrez zoaz! Aberatsa zara.

JONATAN: *Ya*, baina 16 urtera arte? *Aitek* eramaten. *Si* hori gertatzen zaio nire lehengusuari.

IRATI: Ba batelean! *En plan Madalentxu*.

OLAIA: Kar, kar, kar! Ba marearen kontra tokatzen denean... zelako *matada*!

IRATI: Egia! Kar, kar, kar!

JONATAN: Bizikletaz. Baina tardatzen da. Bueno, *sin más*, e, ni joan naiz.

IRAKASLEA: Ados, ados... debate interesgarria. Beraz, baditu bere alde txarrak urbanizazio eskusibo xamar batean bizitzeak ere?

OLAIA: Bai, baina baserriak eta ortuak baino askoz hobea! *Más guay*.

IRAKASLEA: Baserriko bizimodua ez dago oso modan, badakit, bai. Hemen inori gustatuko litzaioke baserritarra edo abeltzaina izatea nagusitan?

JONATAN: Abeltzaina? *Qué es eso? En plan munipa?*

IRATI eta OLAIA: Kar, kar, kar, *munipa*!

IRAKASLEA: Baserriko abereak hazi eta zaintzeaz bizi dena. Behiak, txerriak, oiloak... Abeltzaina, Jonatan, abeltzaina.

JONATAN: A, joe! Ez egin barre!

IRAKASLEA: Inork ikusten du bere burua nagusitan baserriko lanetan?

JONATAN: *Ni de palo*!

IRAKASLEA: Eta arrantzan?

JONATAN: Arrantzale? *Si madrugatzen dute* pila bat!

IRAKASLEA: Harritzen nauzu, Jonatan. Zein batxilergo egin nahi duzun ez jakiteko, ze argi daukazu baserrian edo arrantzan ezetz.

JONATAN: *Es que* hori da *rollo bat*.

OLAIA: Iratik instagramerra izan nahi du! Kar, kar, kar!

IRATI: *Qué dices?* Kar, kar, kar! Ez da egia!

IRAKASLEA: Neskak, mesedez! Beste galdera bat: jatea gustatzen zaizue?

DENAK: Bai! Klaro! Eta nori ez!

JONATAN: *Pizza sobre todo!*

OLAIA: Burger King hobeto.

IRAKASLEA: Entsaladarik ez duzue jaten ala?

IRATI: Baaai. Baita.

OLAIA: Nik ez. Barazkiak... Buaj!

JONATAN: *Muy mal* Olaia! Behar duzu ikasi...

OLAIA: Eta zuk euskeraz hitz egiten ikasi.

IRAKASLEA: Olaia, mesedez! Eta arrainik, jaten duzue? Herrian ondino arrantzaleak daude. Oso arrain ona jan daiteke hemen!

DENAK: Baaai! Arraina bai. Segun ze arrain...

IRAKASLEA: Beno, ba, behar dugun janari guztia, baita pizza eta Burger Kingeko janaria egiteko lehengaiak lortzeko ere, norbaitek nonbait lurra landu behar du, abereak hazi eta zaindu, arraina arrantzatu... eta hobe gertuago urrunago baino! Zenbat eta gertuago ekoiztu, kalitate hobekoak izaten dira produktuak eta osasuntsuago gagoz gu eta planeta bera ere, ez delako garraioekin kutsadurarik sortzen.

JONATAN: E, e, e! Hau da *adoctrinamiento!*

IRAKASLEA: Zer dinozu? Ez, ez, ez, Jonatan. Ez da adoktrinamendua. Ni ez nago zuek behartzen ez animatzen baserritar, abeltzain edo arrantzale izatera! Esaten nagoena da ondo pentsatu behar dela zeintzuk ditugun lanbide duintzat, desiragarritzat. Ze bizimodu mota nahi dugun...

OLAIA: Ba soldata on bat duena. *Money, money!*

IRATI: Eta opor asko.

JONATAN: *Ya, klaro, eta nada de jefes, ordutegi a la carta, ser famosa... Estas flipan, irakasle!*

IRAKASLEA: Jonatan! Euskeraz egiteko saiakera egiten duzuenan ondo egiten duzu. Errezena gaztelerara jotzea da. Egia da DENA duen lanbide bat lortzea ez dela erreza. Lanbide guztiek daukate alde polita, alde gogorra, sariak, sakrifizioak... Baina kritikoak izan behar dugu saltzen diguten

idealarekin. Pentsatu zenbat jende egoten den bulego batean, zortzi ordu egunean ordenagailu baten aurrean jesarrita eta gero kirola egiteko edo naturara joateko denborarik ez! Edo energiari ez!

DENAK: Ya... bai... gehienak!

IRAKASLEA: Lanbide zaharretan, lan gehienak fisikoak dira, naturarekin kontaktuan, animaliekin... gauza politak dauzkate eta gure arbasoen jakinduriarekin lotzen gaituzte. Pentsatu, adibidez, kantutegiko kantu asko eta asko lan giroetan edo lanaldiaren amaieran abesteko sortu zirela. Abesti horiek horrela iritsi dira gaur egunera arte. Eta ez dut uste bulegoetan asko abesten denik lan egin bitartean...

IRATI: *Ya! Total.*

JONATAN: *Pues, zergaitik ez? Te imaginas, hor ofizinan en plan: "Boga, boga..." tekleatzen!*

DENAK: Kar, kar, kar!

OLAIA: Guk orain, zuhaitzak sartu bitartean abestuko dugu?

IRAKASLEA: Nahi baduzue bai. Gainera horrela Zitzeren memoriak berpiztuko ditugu. Hartu tresnak eta zuhaitzak.

(Triki-doinua entzuteaz batera, Zitze, Felisa, semea... sartzen doaz eszenan, kantujiran laguntzen dieten beste askorekin batera, antzezlanean parte hartu duten guzti-guztiak, alegia. Umeak ere batzen zaizkie saltoka eta, azkenik, irakaslea bera ere bai.)

Hauxe da despedidea
Despedida honen tristea
Agur aita agur ama
agur arreba neurea.

AMAIA